



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

KAZETARITZA

2021-2022 IKASTURTEA

Aralar, balioen eta interesen aniztasuna parke natural batean

EGILEA: Aitor Garmendia Etxeberria

ZUZENDARIA: Jose Mari Pastor Gonzalez

2022ko maiatzaren 15a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

“La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo”.

AURKIBIDEA

<u>ERREPORTAJEA</u>	4
<u>Testu nagusia</u>	4
<u>Lehenengo zatidura</u>	18
<u>Bigarren zatidura</u>	20
<u>ELKARRIZKETA</u>	22

ARALAR

natura eta gizakia bat

Testua eta argazkiak: Aitor Garmendia Etxeberria

Aralarko mendigunean, mende luzez elkar aberastu dute gizakiak eta naturak. Azken urteetan, ordea, parke naturaleko interesak dibertsifikatu eta ugaritu dira. Horrek gizakien arteko konfrontazioa ekarri du eta bigarren planoan geratu da mendia.

Zuhaitz artean, goroldio eta kareharriz beteriko labirintoan zehar iristen da Sarastarriko gailurrera. Ez da mila metroko altuerara heltzen, baina bertatik paregabea da Aralarko larre zein tontorren ikusmira. Udaberria heldu berria da eta, oraindik, urruneko tontorretan elur arrastoek dira. Sai bat hegan dabil harkaitz artean, lasai. Aralarko larreak bezala. Laster amaituko da, baina, lasaitasun hori. Maiatza heltzearekin batera igoko dira ardiak, behiak eta behorrak larreetara. Artzainen txaboletan tximinietatik kea ateratzen hasiko da eta, egun eguzkitsuetan, mendizaleak ere agertuko dira.

Laster egingo dute bat gizakiak eta naturak Aralarren. Aurten ere, neguko atsedenaldiaren ostean, mendia prest da gizakiari ongi etorria emateko. Mende luzez aberastu dute elkar, baina tartean gorabeherak ere izan dira. Azken urteetan, gainera, mendiaren erabilpenak eta interesak dibertsifikatu dira. Horrek zenbait gatazka sortzea ere eragin du.

Mendigunearen Gipuzkoako zatia parke naturala da eta 10.956 hektareako zabalera du. Bertan daude Txindoki mendi ikonikoa, Ganbo tontorra edota Alotzako larreak. Baita belardi eta muinoez gaindiko baso zabalak ere, gehienak Nafarroarekin mugan daudenak. Izan ere, Aralarren azalera parke naturalarena baino zabalagoa da. Nafarroako zatia ez dago parke natural gisa izendatuta, baina mendiguneak bi lurraldeen arteko muga lana egiten du. Mendigunea, baina, mugak eta izendapenak baino zaharragoa da.

Nafarroan dago, esaterako, Irumugarrieta (1.431m), Aralarko gailurrik altuena. Tontorretik behera begiratuta Araiz bailarako herri txikiak eta harrizko baserri sendo sakabanatuak ikusten dira. Behetik begiratuta harresi igaroezina dirudite Malloek, mendilerroaren ipar ekialdeko tontorrek. Nafarroako parte da Aralarko San Migelen santutegira ere.

Kondairak dioenez, San Migel santuak salbatu zuen Teodosio Goñikoa Aralarren bizi zen herensugearen atzaparretatik. Eliza erromanikoaren barnealdean dago, ustez, herensugearen bizitokia izandako zuloa. Bestetik, San Migelgo erretaularen historia ere aipagarria da. Esmaltez eginiko artelana lapurtu egin zuten 1979an eta, urte batzuk geroago, Europa osoan zehar topatu zituzten XII. mendeko lanaren piezak.

Nafarroako zatia, Gipuzkoakoa bezalaxe Kontserbazio Bereziko Ereku izendatu zuten eta Europako Natura 2000 sarearen parte da. Bestetik, bi aldeetako larreak zein basoak inguruko herritarrek ustiatu dituzte urte luzez. Nafarroan Aralarko Errege Sailak deritza herritar ustiapenerako eremu horri eta Aralarko Elkartean dauden hemeretzi udalerrik erabiltzen dute. Gipuzkoan, bestetik, Enirio-Aralar Mankomunitatea dago; 600 urte baino gehiagoko historia du eta ha-

mabost udalerrik administratzen dute. Mankomunitateak hartzen duen lur eremuaz gain, Abaltzisketak, Amezketak, Ataunek, Lazkaok eta Tolosak ere lursailak dituzte parke naturalean.

Mendietako isiltasuna

Mendigunea parke natural izendatu zenean, 1994an, eginiko dekretua da Aralarren kudeaketarako tresna nagusia. Honek mendiaren interes eta erabilpen anitzei erreparatzen die eta horren arabera helburuak ditu. Lehenengoak balio naturalen babesa aipatzen du: “Flora, fauna, gea, paisaia eta ekosistemak babestu, aratu eta, behar denean, lehengo egoerara itzularaztea”.

Iñaki Aizpuru botanikaria parke naturaleko zuzendari izan zen eta, egun, Itsasondoko ordezkaria da mankomunitatean. Argi dauka Aralarrek zergatik duen horrenbesteko balio naturala: “Gizakiak zenbait eta gutxiago eragin, orduan eta aberatsagoa da ingurua. Amazonas zergatik da aberatsa? Jende gutxi bizi delako eta naturak bere papera egiten duelako. Hemen, mendietan gertatzen da hori”.

Udan, artzainak eta abereak izaten dira Aralarko biztanle eta zintzarri hotsak entzun daitezke nonahi. Neguko hotzak heltzerako, ordea, herrietara jaisten dituzte abereak eta, maiatzera arte, ezi dira itzultzen. Tarte horretan, mendizalaren bat edo beste topatu daiteke asteburu eguzkitsuetan. Asteazken zehar eta egun goibeletan, osteraz, haizearen hotsak eta txori ausartenen kantuek, soilik, urratzen dute mendiko larreetako isiltasuna.

Parke naturalak babestea helburu dituen balio naturalak bi fauna eta flora dira. Landareei dagokienez, galtzeko zorian dauden espezie ugari topatu daitezke Aralarren. Horien artean, hiru nabarmentzen ditu Mikel Etxeberria Aranzadi Zientzia Elkarteko botanikariak: *Nigritella gabasiana* Teppner & E. Klein, *Lathyrus vibrantii* P. Monts eta *Cicerbita plumieri* (L.) Kirschl.

Bestetik, Euskal Herrian, mendiko fauna egoera onean topatzeko, helmuga garrantzitsuetakoa dela dio Mar Ramirez natura eta mendi gidariak *Animaliak behatzeko ibilbiderik onenak* liburuan. Hegazti harraparien bilgune da mendilerroa, bertan bizi dira, besteak beste, sai arrea, arrano beltza edota mirotz urdina. Halerre, nabarmendu beharrekoa da ugatzaren presentzia. Europako hegaztirik handiena ikus daiteke Aralarko larreen gainean hegan.

Ramirezen liburuaren arabera, Europako kakalardo espezierik handiena ere topa daiteke Aralarko basoetan: usteldutako enborrez elikatzen den kakalardo adarduna. Enborrak okil beltzaren eta alpetar adarluzearen bizileku ere badira. Bestetik, erreken kontserbazio egoera ona dela eta, bisoi europarra edo Pirinioetako mutur-luzea bezalako espezieak ere topatu omen daitezke.

Espezie horiek bizi diren ura ere balio garrantzitsua da Aralarren. Ur horrek ureztatzen ditu parke naturaleko lanadareak ere. Jose Antonio Irastorza mankomunitateko basozainak garrantzia hori nabarmendu du: “Oso garrantzitsua da eta ez da kontuan hartzen bistan dagoena zein lurpekoa. Udan joaten diren abere guztiei, gutxienez bost hilabetez, jana eta ura emateko kontuan hartu zer ondasun dagoen”.

Depositu erraldoia

Bertan bizi diren abereei soilik ez, herrietako biztanleentzako depositu funtzioa ere egiten du Aralarrek. Mendilerroaren magalean jaiotzen dira erreka ugari eta horiek betetzen dituzte, esaterako, Lareo eta Ibiurko urtegiak. Horregatik, Aralarko ura etorkizunerako funtsezkoa izango dela uste du Iñaki Aizpuruk: “Hemen badirudi sekula ez zaigula urik faltako, baina Doñanan [Andaluzia, Espainia] ere hori pentsatzen zuten. Etorkizunerako baliabide horiek dira behar ditugunak: ura, aire garbia, luzorua... Finean, natura”.

Aralarko urak badu beste berezitasun bat. Mendilerroak isurialde kantabriarra eta mediterranea bereizten ditu. Beraz, gizakiak lurraldeen arteko mugak jarri aurretik, jada, uren banalerro zen mendigunea. Ataunen kontatzen dutenez, Lizarrusti mendatean dagoen txabolan da banaketaren lekuko. Euria egiten duenean, txabolako teilatuaren alde bateko urak Nafarroa aldera joaten omen dira, hortaz, Mediterraneoan amaituko dute. Teilatuaren beste aldekoak, oster, Gipuzkoa zeharkatu eta Kantauri itsasoa izango dute helmuga.

Duela milioika urte, itsasoa gertuago zuen Aralarrek; mendigunea bera ere itsas azpian egondakoa baita. Garai hartan, urpean sortutako arroak dira, egun, Aralarren ageri diren kareharriak. Geologia aldetik zenbait egitura aipagarri osatu dituzte harri horiek: Malloetako ebakidura edo Ataungo domoa, esterako. Agautz mendiaren tontorretik ondo nabaritzen da domoko mendiek osatzen duten forma zirkularra.

Zirkulu forma dute Arritzaga erreka putzuek ere. Aralarretik Amezketara, putzutik putzura jauzika jaisten dira urak. Izen bereko haranean du sorburua erreka: Arritzagako haran glaziarrean. Noizbait, glaziarra ere egon baitzen Aralarren. *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentalean, Arantza Aranburu geologian doktoreak Arritzaga “Euskal Autonomia Erkidegoko arrasto glaziar onena eta ia bakarra” dela aipatzen du.

Haran glaziarren inguruetan zuhaitz gutxi daude, baina, parke naturalean, mendi malkartsuez eta larre zabalez gain, udaberrian hostoz betetzen diren guneak ere badaude. Aralarko basoek, ordea, gorabeherak izan dituzte historian zehar. Antzina, herritarrek ustiatzen zituzten, nork bere beharrak asetzeko. XVIII. eta XIX.

mendeetan, aldiz, burdinolek, ontziolek eta arma fabriketarako egurra behar zutelara eta, pagadietako balio ekonomiko hartu zuten. Gainera, etengabeko gerren ondorioz, udalak zorpetuta zeuden eta Aralarko pagadiak ustiatzen hasi ziren.

Ustiapen horrek izan ditu bere ondorioak: “200 urtetan basoaren azalera erdia galdu da”, azaldu du Iñaki Aizpuru Enirio-Aralar Mankomunitateko batzarreko kideak. Halere, jakinarazi du basoak berreskuratzeko landaketak egiten ari direla. Basoek berez duten baliorez gain, abereentzako itzala egoteko ere beharrezkoak dira zuhaitzak.



Arritzaga erreka



Lareo urtegia

Hezkuntzaren garrantzia

Itzalaren beharra dagoen bezala, itzalekoa argitara ateratzeko beharra ere badago Aralarren. Nahiz eta bi parketxe egon (Lizarrustin eta Barandiaran Museoa, biak Ataunen), Aralar “gutxi” ezagutzen dela uste du Ion Fontenlak, *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentalaren egileak: “Txindoki, batez ere, eta Ganbo edo Gaztelu mendiak bai, baina osotasunean ez da ezagutzen”. Aralar gauza askoren batura dela erakusteko ekoitzi zuten dokumentala Fontenlak, Aloña Jauregik, Garazi Auzmendik eta Iban Toledok.

“Gizakiak zenbait eta gutxiago eragin, orduan eta aberatsagoa da ingurua. Amazonas zergatik da aberatsa? Jende gutxi bizi delako eta naturak bere papera egiten duelako. Hemen, mendietan gertatzen da hori”

Iñaki Aizpuru, botanikaria eta Enirio-Aralar Mankomunitateko batzordekidea

“[Aralarko ura] oso garrantzitsua da eta ez da kontuan hartzen bistan dagoena zein lurpekoa. Udan joaten diren abere guztiei, gutxienez bost hilabetez, jana eta ura emateko kontuan hartu zer ondasun dagoen”

Jose Antonio Irastorza, Enirio-Aralar Mankomunitateko basozaina

“Txindoki, batez ere, eta Ganbo edo Gaztelu mendiak bai, baina osotasunean ez da ezagutzen”

Ion Fontenla, *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentalaren zuzendaria

Dokumentala Landarlan Ingurumen Elkartearekin elkarlanean ekoitzi zuten. Edurne Huesa Landarlaneko kideak dokumentalaren zergatia azaldu du: “Aralar altxor bat da, aspektu ezberdinak dituena. Horregatik saiatu ginen dokumentala egiten, alde guztiak ezagutarazteko”. Gerora, haurrentzat ere zerbait egiteko proposatu zioten Patxi Zubizarreta idazleari. Honek *Garalar Maralar* ipuin bilduma osatu zuen. “Kontakizunak Aralarren kokatuta daude eta protagonista artzain bat da”, adierazi du Huesak.

Hurrei naturaren inguruko ezagutzak zabaltzeak duen garrantziaren jakitun da Irastorza basozaina ere. Eskoletan ingurumenarekin eta klima aldaketarekin lotutako gaiak esker mendiarekiko kontzientziarioa asko hobetu dela uste du. Halere, Aralar ez da “behar adina” ezagutzen bere ustez: “Bertatik bertara bizi duten abeltzainek bai, eta beste multzo batek ere bai, baina gehiengoak ez du ezagutzen”.

Irakaskuntza eta hezkuntza garatu ahal izateko, ordea, ezagutza sortu behar da lehenik. Ikerketa zientifikoak funtzio hori dauka eta, horretarako ere, leku aproposa da Aralar; zenbait alorretako adituak elkartu izan dira bertan eta ikerketa ugari gauzatu dituzte.



Mendizaile bat Ausa-Gazteluko gailurrean



Arritzagako meategien arrastoak

Denboran atzera eginik, historikoki “puntu estrategikoa” izan da mendigunea Juantxo Agirre historialariak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkari nagusiak *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentalean azaldu moduan. Nafarroako Erresumako bi gotorleku garrantzitsu egon ziren bertan: Ausa eta Jentilbaratza. 1335ean, Ausako gotorlekua galdu eta Gipuzkoa Gaztelaren esku geratu zen. Egun, Gaztelu ere deitzen zaio Ausa gotorlekuaren arrastoak dituen mendiari. Oroigarri gisa Nafarroako bandera bat jarri zuten, baina, gotorlekua bezalaxe, bandera ere ia desegina dago.

Arkeologoen, Erdi Aroko gotorlekuez harago, badute Aralarren zer ikertua. Euskal Herriko megalito kontzentrazio handieneko eremua da. Telesforo Aranzadi, Enrique Eguren eta Jose Migel Barandiaran ikerlari ezagunek lan handia egin zuten bertan. Menhirrak, trikuharriak, harrespilak... denetatik dago Aralarko larreetan.

Meategiak ere aztertu izan dituzte; ezagunenak Arritzagakoak dira. Aurreko mendera arte ustiatu dituzte eta, oraindik, arrasto ugari daude: labeak, meagarbitzeko guneak, kable sistema... Kableetan zintzilik, materiala garraiatzeko bagonetek diraute oraindik.



mendiko ekosistemetan. Horretarako, 2005ean, alde bakoitzean 50 metro dituzten lau lursail hesitu zituen Aralarren. Horietan, galdera baten erantzuna aurkitu nahi du: “Zer gertatuko litzaieke Aralarko larreei artzaintza desagertuko balitz?”.

Bere ikerketa hasi zenetik hamabost urte baino gehiago igaro dira eta, itxuraz, hesitutako eremuek ez dute aldaketa handirik jasan. Ikerketek, ordea, aurkitu dituzte ezberdintasunak: “Abereak larratutako guneetan, lurzorua trinkoagoa da eta temperatura aldaketak bortitzagoak dira. Halere, landare espezieen aniztasuna handiagoa da eremu horietan”. Biodibertsitatearen kontserbazioa eta abeltzaintza-sistemen jasangarritasuna uztartzea da Aldezabalen ikerketen helburuetako bat.

Izan ere, abeltzaintzak pisu handia du Aralarren. Gipuzkoako artzaintza gune garrantzitsuena da kopuru aldetik: 65 artzain daude lurralde osoan eta horietatik 40 Aralarrera joaten direla jakinarazi du Aizpuruk. Aralarko artzaintza gisa izendatzen du Fermin Leizaola etnografoak *Artzaintza tradizionala, Gipuzkoan* artikuluan. Maiatzaren 1ean irekitzen dituzte mendiguneko larreak eta artzainak lehenengo elurteen aurretik jaisten dira berriro herrietara. Neguak mendi-lerroaren oinetako herrietan igarotzen dituzte artzain batzuek; beste batzuek, ordea, kostaldera jotzen dute.

“Abereak larratutako guneetan, lurzorua trinkoagoa da eta temperatura aldaketak bortitzagoak dira. Halere, landare espezieen aniztasuna handiagoa da eremu horietan”

Arantza Aldezabal, biologian doktorea eta irakaslea zein ikerlaria EHU

Artzaintza eremu

Arkeologiaz eta historiaz gain, Aralarko larreetan bestelako ikerketak ere egin dira azken hamarkadetan. “Ikerketa zientifikoa eta oinarritzko prozesu ekologikoen azterketa sustatzea” parke naturalaren sorrerako dekretuan aipatzen den beste helburuetako bat da. Horretan dabil Arantza Aldezabal biologian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle zein ikerlaria.

Iraunkortasuna, biodibertsitatea eta klima-larrialdia hitzaldian azaldu duenez, lurzoruaren, landareen eta herbiboroen arteko elkarrekintza ari da ikertzen

Artzain horientzat Aralar “soluzioa” dela uste du Iñaki Aizpuruk: “Herrietan ez dago leku asko eta bost edo sei hilabetez ganadua goran edukitzeak lasaitasuna ematen du”. Iritzi berekoa da Enba Euskal Nekazarien Batasuneko kudeatzaile Xabier Iraola: “Uda goian igarotzeak arnasbidea eta saneamendua ematen die artzain zein abereei. Aralarko airea zen elikadura hobea da”.

Aralar artzain eta artaldeentzat beharrezkoa den bezala, artzaintza funtsezkoa da parke naturalarentzat. Horregatik, parke naturalaren helburuetan, balio naturalarekin eta ikerketa zientifikoarekin batera, artzaintzak pisu handia du.

“Uzten diguten bitartean”

Familiatik datorkio artzaintzarako bokazioa Ixiar Altuna amezketarrari. Bere bi osaba artzain izandakoak dira eta, erretiroa hartzen joan diren heinean, 25 urteko amezketarrak eta bere anaiak hartu diete erreleboa. Amezketako baserrian bizi dira eta, udan, ardiak Aralarrera igotzen dituzte, Latosa txabolara. Argi dauka emakumezkoek gizonetzkoek adina lan egin dutela artzaintzan, baina “ez da erakutsi”. Orain, ordea, zenbait laguntzari esker, emakumeek artzaintzako titulartasuna lortzeko balio duela uste du.

Altuna artzain profesionala da. 600 buru inguruko artaldea du eta esnea zein arkumeak saltzen ditu. “Ardietatik bizi” den arren, Abaltzisketako dendan ere lan egiten du. Txindoki magaleko herrian dagoen zerbitzu bakanetako bat da. Denda txikia da, baina denetik du, nagusiki, bertako produktuak. Altuna bertan egon ohi da, goiz zein arratsalde herritarren zerbitzura. Egunaren gainerako orduak, berriz, ardiei eskaintzen dizkie.

Arkumeak jaio eta saldu bitartean, horien zaintzan jarduten du eta, gerora, ardiak jezten hasten dira esnea saltzeko: “Goizean, ardiak jezten ditugu, jaten eman eta belazera ateratzen ditugu. Gero, dendara etortzen naiz. Eguerdian baserrira itzuli eta jezteko

makina prest uzten dugu. Arratsaldean, berriro dendara eta, itxi ostean, ardiak jeztera”.

Maiatzaren 1etik aurrera, Aralarko larreak irekitzen direnean, egunerokoa bestelakoa izaten du artzainak. Ardiak mendira igotzen dituzte eta osabak igarotzen du uda goian ardiak zainduz. Garai horretan, etxean dituzten gainontzeko abereez arduratzen da Ixiar Altuna eta, ahal duen guztietan, joaten da Latosa txabolara: “Jaiegunetan, igandeetan, arratsaldeetan...”.

Txabolara oinez igotzea beste modurik ez dago. Amezketatik pista dute ia Arritzagako haraneraino, baina handik “berrogei minutu inguruko” ibilbidea dute Latosaraino. Horregatik eta etiketarik ez duteenez, ez dute gaztarik saltzen: “Urte batzuetan etxerako gazta egiten dugu, baina etiketarik ez daukagu eta txabolarako biderik ere ez. Oso zaila da egunero gauzak igo eta jaitsi ibiltzea, mandoekin ibiltzen gara, duela ehun urte bezala”.

Artzaintza ez da lan erraza eta atsedenerako tartarik ere apenas du, baina amezketarrak maite du bere ogibidea: “Askotan pentsatu dut dendako lana utzi eta, erabat, artzaintzatik bizitzea”. Halere, momentu honetan egoera ez da erraza: “Zalantzan negoen artzaintzak bizitzeko adina ematen zuen ala ez, baina hemendik aurrera, ezetz esango nuke”.



Artzain Eguna, Ordizian

Gastu handiak dituzte eta prezioak gorantz doaz: “Gastu handiena elikadura da. Produzitzen ari denari eman egin behar zaio eta, udaberrira arte, ez da belarrik hazten. Pentsua erosi egin behar da eta asko garestitu da”.

Gainera, bestelako gastuak ere badituzte: traktorearen erregaia, Aralarren larratzeagatik ordaindu beharreko kuotak edo neguan ardiak edukitzeko lur sailen errentak, besteak beste. Altunak artilea saltzen zen garaia ez zuen ezagutu, baina gogoan du zenbait herritar haren bila joaten zirela. Orain, ordea, artilea arazo bihurtu zaie: “Inork ez du nahi eta zaborretara botatzeagatik ordaindu egin behar da. Pentsa, 600 ardi diko artaldearekin...”.

Artzaintzan jarraitzeko asmorik duen galdetzerakoan, segituan erantzun du: “Bai”. Segundo batzuk igaro ostean, berriz, ñabardura bat erantsi dio: “Uzten diguten bitartean”. Kostuen igoerak kinka larrian jarri du, jada, kolokan zegoen ofizioaren errentagarritasuna: “Kostuak igotzen ari dira eta gure produktua ez. Duela 30 urte bezala ordaintzen digute: esnearengatik, litroko euro bat inguru. Arkumeak, berriz, 3,2 euro kiloko. Gabonetan, harategira joan eta 20 eurotan saltzen dute kiloak!”. Horixe da Ixiar Altunaren ustez sektorea galbidera daramana: “Duen balioa ez ematea”.

Merkatuaren menpe

Jose Antonio Irastorzak 36 urte daramatza Aralarren basozain lanetan. Tarte horretan, artzainen kopurua “tantaka-tantaka beheraka” joan da eta, hasi zenean bezala, orain ere “artzain gehienak adinekoak dira”. Nabaritu duen aldaketa nabarmenena behi eta behorren kopuruan dago: “1990ean, 110 behin zeuden. Orain, mila inguru daude”. Mankomunitatearen datuen arabera, 2020 urtean, 16.430 ardi, 863 behor eta 1.021 behi zeuden Aralarren. Beraz, ardiak gehiengo diren arren, Aralarren bestelako abereak ere badaude.

Xabier Iraola Enbako kudeatzaileak azaldu duenez, artzainen gehiengo profesionala den bitartean, behi eta behorren jabe gehienak ez. Hala ere, beraien lana ere aitortu beharrekoa dela dio: “Mendiari onura berdina egiten dio profesional baten abereak edo profesionala ez den batenak”. Bestalde, zenbait laguntza ematerako orduan, ondo iruditzen zaio profesionalak lehenestea. Zer da, baina, abeltzain profesional bat? Bada, mankomunitatearen ordenantzen arabera, abeltzain profesionala da “urteko etekin gordinen %75a, gutxienez, abeltzaintzatik eta nekazaritatzatik lortzen duena”.

Uxue Artola abeltzain profesionala da. 25 behor eta 150 txerri ditu. Andoaingoa da jaiotzez, baina Amezketan bizi da egun. Senarrak eta biek, afizioz, zenbait abelburu zituzten baserrian, baina Artolak okindegi



batean egiten zuen lan. Ama izan ostean, ordea, lanik gabe geratu zen eta orduan erabaki zuen “afizioa, ofizio” bihurtzea. Baserria bera ere parke naturalean dute, Amezketatik Aralarrera doan pistaren hasieran. Txerriak bertan edukitzen dituzte urte guztian zehar, baina behorrek mendira igotzen dituzte udan.

Behorrek ez dute ardiek bezalako atentzioa eskatzen: “Ez da hain lotua, baina egunero begiratzen diegu”. Artolak ez ditu behorrek ukuilura sartzen, “mina hartzen dutenean soilik”. Beraz, bere eginkizun nagusia abereen gainean egotea da: “Jana zein ura dutela eta itxituretatik ateratzen ez direla begiratu behar da”. Behorrek mendira igotakoan ere antzerako egitekoak ditu: “Hasieran, ia egunero joaten gara, pixka bat asentatu arte. Gero, bi egunez behin edo horrela”.

Zaintza lanak errazteko GPSak jarri dizkiete abereei, “erosotasunerako eta animalien segurtasunerako”. Baserritik abiatzen den pistan gora igotzen dituzte abereak eta pista amaitzen den inguruan askatu. “Gehienean ez dira asko aldentzen. Halere, GPSari esker, urrundu edo leku malkartsuren batera joaten badira, jakinaren gainean gaude eta segituan igotzen gara”.

Altuna artzainak bezala, gastuen igoera asko nabaritu du. Pentsua zein negurako belarra prestatzeko traktoreen erregaia dira bere gasturik handienak. “Behorrek ez”, baina txerriekin “asko” nabaritu du pent-

“Duela 30 urte bezala
ordaintzen digute:
esnearengatik, litroko euro
bat inguru. Arkumeak, berriz,
3,2 euro kiloko. Gabonetan,
harategira joan eta 20 eurotan
saltzen dute kiloa!”

Ixiar Altuna, artzaina

“Ez da kontuan hartzen
Aralarren estentsiboki hazi
ditugula. Ez da ukuilu batean
hazi denaren berdina, baina
merkatuarentzat bai”

Uxue Artola, abeltzaina

suaren garestitzera; orain, zereal uztaren prezioarekin zer gertatu zain dago. Izan ere, txerriekin, Basatxerri kooperatiban dagoenez, prezioak eurek erabakitzen dituzte; muxalena (behor kumeak), aldiz, merkatuaren arabera da: “Ez da kontuan hartzen Aralarren estentsiboki hazi ditugula. Ez da ukuilu batean hazi denaren berdina, baina merkatuarentzat bai”.

Horregatik guztiagatik, etorkizuna “beltza” ikusten du. Jarraitzeko asmoa du, baina, Ixiar Altunak bezala, ñabardura bat jarrita: “Egoera asko okertzen ez bada”. Izan ere, gastuen gorakada dela eta, “etekinik gabe” geratu daitezke eta, “deskuidatuz gero, zorretan”.

Humanizatutako paisaia

Altunak eta Artolak bezala, udan euren abereak mendira igo dituzten abeltzainenengatik ez balitz, Aralarrek ez luke duen itxura izango. Arantxa Ariztimuño Mendietako eta Natura Inguruneke zuzendari nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundian. Abeltzainek Aralarren izan duten eragina nabarmendu du: “Eremu hauetako ardatzetako bat pertsonak dira. Aralarko larreak ez lirateke larreak izango, baldin eta abererik ez balego. Ona edo txarra izango litzateke? Desberdina”.

Basoen ustiapenarekin batera, mendeetako abeltzaintza dira Aralarren belardi zabalak egotearen arrazoia. Xabier Iraola Enbako kudeatzaileak ere abeltzainen eragina azpimarratu du: “Aralarko belardien irudi sinboliko horrek natura aldetik sekulako balioa du, baina humanizatu dago. Gizarteak eraldatu du”. Ariztimuñok, gainera, larre horiek zaintzeko beharra ekarri du gogora: “Natura 2000 Sareak Aralarko larreak babesten ditu, horiek egoera onean mantentzeko konpromisoa daukagu”.

Ariztimuñok zein Iraolak azaldu dutenez, gizarteak paisaia baloratzen du, baina atzean dagoen lana ez. Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneke zuzendariaren ustez, gizarteak aldatzearekin batera “mendien irakurketa ere” joan da aldatze. Iraolak, berriz, Aralarko abeltzainen lanaren gogortasuna azpimarratu du: “Aralarko argazki guztiak egun zoragarrietan ateratakoak dira, eguzkitan. Beheran eguzkia dagoen askotan, aldiz, mendian behe lainoa egoten da eta lanbroa egiten du. Baloratzen da emaitza, baina ez emaitza hori, hein batean, abeltzainaren ondorioa dela”.

Ixiar Altuna artzainak eta Uxue Artola abeltzainak ere ez dute beraien lana baloratuta sentitzen, baina Aralarren abereek egiten duten lana beharrezkoa dela diote. “Zenbait ustialeku ixten ari dira eta horrek mendia zikintzea dakar”, azaldu du Artolak. Altunak Enirio ingurua jarri du adibide gisa: “Han garoa eta otea ateratzen ari da, belardirik ia ez dago”.



“Eragozpenak” jartzen dizkietela salatu dute bi abeltzainek eta horien artean aipatzen dute irisgarritasuna. Azken urteetan, Aralarko mugak zeharkatu ditu polemika horren oihartzunak. 2016an lehertu zen gatazka, Enirio-Aralar Mankomunitateak, Aldundia-rekin batera, pista batzuen eraikuntza onartu zuenean. Egun, abeltzainek pista gehiago eskatzen dituzte; udal agintaldi berriko mankomunitatea, ordea, ez da aldekoa. Auzia puri-purian dago.

Ixiar Altunak ez du pistarik Latosa txabolara heltzeko: “Pista Arritzaga baino lehentxeago amaitzen da eta handik gora sekulako aldapa dago. Oinez joanez gero, gaitz erdi; baina mandoa trastez beteta eramatea asko kostatzen da”. Uxue Artolak pista amaitzen den inguruan askatzen ditu behorrak, baina abereren batek mina hartzen duenean iristen omen da arazoa: “Gertatu izan zaigu eta erremolke bat behar da. Pistarik ez badago, zer egin behar duzu? Sufritu ez dezan, buruko bat eman eta putreek jan dezaten utzi?”.

Aurkia eta ifrentzua

Halere, Artolak uste du artzainen egoera behor zaleena baino zailagoa dela: “Mandoa hartu eta historiaurrean bezala ibiltzea oso triste da. Artzain askoren egunerokotasuna ez da goran amaitzen”. Udan, zenbaitek belarra egitera, burokrazia tramiteak aurrera eramatera edo gazta saltzera jaitsi behar izaten dute herrietara. Horregatik, uste du irisgarritasuna hobetzea beharrezkoa dela, menditik herrirako joan etorriak errazteko.

Altuna artzainak uste du posible dela beraien txabolaraino pista bat eraikitzea eta, pista eraiki nahi ez izatea ulertzen duen arren, Aizkorriko adibidea jarri du: “Han txabola guztietara daude pistak eta ingurumenari egiten zaion kaltea ez da horrenbestekoa”. Hori bai, pistetako sarbidea mugatu beharko litzakeela uste du: “Edonork igotzea baldin badu, kalte handia egin dakiok; baina, inguru horretan ez gara jende asko ibiltzen”.

Enbako kudeatzailearen eta Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendariaren arabera, irisgarritasuna hobetzea beharrezkoa da artzaintzaren etorkizuna bermatzeko. Egun dauden artzain asko adinekoak dira eta horiek “inertziak” edo “besterik ezagutu ez dutelako” jarraitzen dutela uste dute. Belaunaldi berriak erakartzeko orduan, aldiz, “txabolak hobetzea eta bideak egitea” beharrezko baldintza direla uste du Iraolak.

Pistek eragiten duten urradura begi bistakoa dela uste du Ariztimuñok; pistak egin ezean, ordea, gertatuko dena asmatzea ere ez dela “oso zaila” dio. Orokorrean, belaunaldi aldaketa lehen sektore osoan kontuan hartu beharreko zerbait dela aipatu du. “Erraztasunak jartzea, bere horretan, ez da nahikoa sektorearen etorkizuna bermatzeko. Nahikoa ez, baina beharrezkoa bai”. Horregatik, herri eta hirietan lan egiten dutenek bezala, abeltzainek ere beren lantokira irisgarritasun ona izan behar dutela aldarrikatu dute Ariztimuñok, Iraolak, Artolak zein Altunak; pista gehiago eraiki beharra dagoela azaldu dute.

Aralarren, ordea, abeltzaintzak balio naturalekin egiten du bat. Gizakia eta natura elkarrekin bizi dira eta, oreka horretan, batzuek balantzaren alde batean jartzen dute pisua eta beste batzuek, oster, bestean. Pisten eraikuntza planek ezinegona sortu izan dute ingurugiroaren zaintzan jarduten duten zenbaitentzat. 2002an Aranzadi Zientzia Elkarteak Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldia dugu horren adibide. Bertan azaldu zuten, pistek Aralarko fauna eta akuiferoak kaltetu ditzakete; baita gizartearentzat dituen balioak ere. Azkenean, Eusko Legebiltzarrak atzera bota zuen pisten proiektua.


Landarlan Ingurumen Elkarteak ere ez ditu begi onez ikusten Aralarko pistak. Elkarteak 2003an sortu zen eta, 2016an, Saltarriko pista onartu zenean, sartu ziren bete-betean Aralarren inguruko auzian. “Aralar Natura 2000 sarean sartu eta segidan onartuz zen, ez genuen koherentziarik ikusten”, azaldu du Edurne

Huesa Landarlaneko kideak. Saltarriko pistaren auzia epaitegietara eraman zuten: “Bost urtez egon da epaitegietan. Ez dute esan legezkoa denik; gaia artxibatu dute legez kontrakoa dela demostratzeko frogarik ez dutelako topatu”.

Huesaren arabera, pistak egitearen arazo handiena lurzoruaren higadura da, nahiz eta, legeetan, ez zaion “hainbesteko baliorik” ematen. Gainera, Aranzadik Legebiltzarrean azaldu zituen kalteak ere aipatu ditu. Horregatik, galdera orokor bat jaurti du: “Txindoki azpian ere badago txabola bat. Zer jarraitu behar dugu azken muturrera arte pistak egiten?”.

“Aralarko belardien irudi sinboliko horrek natura aldetik sekulako balioa du, baina humanizatua dago. Gizarteak eraldatu du”

Xabier Iraola, Enbako kudeatzailea



Aralarren eraikitako pistak, Sarastarriko tontorretik

“Erraztasunak jartzea, bere horretan, ez da nahikoa sektorearen etorkizuna bermatzeko. Nahikoa ez, baina beharrezkoa bai”

Arantza Ariztimuño, Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendaria

“Aralar Natura2000 sarean sartu eta segidan onartuz zen [Saltarriko pistaren proiektua], ez genuen koherentziarik ikusten”

Edurne Huesa, Landarlan Ingurumen Elkarteko kidea

Proposamenak

2002ko Legebiltzarreko saioan, Aranzadiko ordezkariak pista gehiago eraiki gabe arazoa konpontzen saiatzeko proposamen bat egin zuten. Ordurako eginda zeuden pistak baliatuz, txabolen berrantolaketa bat proposatu zuten. Artzain kopurua gutxitzen ari zela eta, urte batzuen buruan, txabola guztiak ez zirela beharrezkoak izango estimatzen zuten. Horregatik, txabolak eta artzainak eraikita zeuden pisten ingurura eramatea proposatzen zuten.

Azkenaldian ere antzeko proposamenak egiten dituzte. Pista berriak egin dira, baina txabolen antolaketa ez da asko aldatu. Txabolak duela urte asko egindakoak dira, abeltzainek autoak erabiltzen ez zituzten garaietakoak. Horregatik, Edurne Huesa Landarlaneko kidearen ustez, txabola horietako batzuk, pixkanaka, husten joan behar dira eta pisten inguruan multzokatu.

Mankomunitateko lurretan 40 txabola daude eta, horietatik, 22k irisgarritasun egokia dutela eta beste batzuetara “adibidez, *quadean*” iritsi daitekeela jakinarazi du Iñaki Aizpuruk. Horregatik, eta kontuan harturik hemendik urte batzuetara, agian, 30 inguru beharko direla, aukera hobea iruditzen zaio pisten inguruan txabola batzuk eraikitzea pistak egitea baino. “Ideiarik ez daukazue’ esaten digute. Egia da zaila dela ardiak larrez aldatzea, baina lehen ere aldatu izan dituzte”, azaldu du Aizpuruk.

Xabier Iraola, Enbako kudeatzailea, ez dago ados proposatutako berrantolaketarekin. Aizpuruk azaldu bezala, artaldea lekuz aldatzeko zailtasunak aipatu ditu. Horrez gain, mendiaren kudeaketarako ere, artaldeak mendian zehar zabaldua egotea “ona” dela uste du. Gainera, berrantolaketa proposatzen dutenen helburua zalantzan jarri du. “Helburuak ez du izan behar txabola gutxiago behar izatea eta bideak egiteko tentazioak alboratzea. Helburua artzainei aukerak eskaintzea izan behar du, Artzain Eskolakoei atea zabaltzea, artzain berriak erakartzea”.



Enirio-Aralarko Larreen Antolaketa Plana egin zuten, 2019an, Jose Luis Remonek, Aitor Salaberriak eta Mikel Etxeberriak. Orduan ere, pisten auzia puri-purian zegoen, baina plana ez da soilik pistei buruzkoa. “Aralar antolatzea” zen azterketaren helburua Mikel Etxeberria biologo eta planaren egilearen arabera. Halere, lanaren ondorioekin jendea “asko” haserretu zen eta beste plan bat egitea adostu zuten. “Egiten ari direla imajinatzen dut”, azaldu du Etxeberriak.

Remonek, Salaberriak eta Etxeberriak eginiko planean, pistak egitea ez zela “proposamen egokiena” ondorioztatu zuten. Horregatik, “epe ertain-luzean, zenbat txabola beharko diren zehaztea” proposatu zuten; hortik abiatuta. “Pistarik gabeko txaboletan kasuz-kasu hartu daitezkeen neurriak hartzeko”.

Matematikak larreetan

Bestetik, Larreen Antolaketa Planak bazka-eskuragarritasuna etaazienda-zamaren arteko erlazioa aztertu zuen. Horretarako, eremua habitatetan banatu eta, bakoitzaren produkzioa aztertuz, Aralar guztiko belar produkzioa atera zuten. Azienda mota bakoitzak jaten duen belar kantitatea ere zehaztu zuten. Ostera, biak alderatu eta... “Atera zen Aralarko belar produkzioa ez dela nahikoa bertako ganadua mantentzeko”, adierazi du Etxeberriak.

Biologoak zehaztu moduan, aziendaren presioa handiegia izateak ez ditu, oraingoz, begi bistako ondorioak eragin: “Aralar oraindik berde dago eta belarra sortzen da. Bai, baina larreei ez zaie leheneratzeko astirik ematen eta belardia aniztasuna eta kalitatea galtzen hasten da”.

Abeltzainen elkarteek ez dute uste gaitzakerik dagoenik. Enbako kudeatzaileak azaldu duenez, abeltzainek, mendira igo aurretik, jakinarazten dute zenbat buru igo behar dituzten; eta horri mankomunitateak eta Foru Aldundiak oniritzia eman behar dio. “Ez da inoiz gertatu gaitzakeria dagoela esan eta atzera botatzea”.

Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendariak ere Iraolak esandakoa berretsi du: “Herri Onurako Menditara ganadua bidaltzeko, lehenik, mendietako foru arauak eta baldintzak bete behar dira. Horietako bat da ganadu karga eta Gipuzkoako mendi bakar batean ere ez dago gaitzakeria”.

Mikel Etxeberria biologoaren ustez “ez da interesatzen” gaitzakeria dagoela esatea, baina sistema esentsiboa intentsifikatzen ari dela uste du: “Inoiz ez da makroetxalde baten mailara helduko, baina gainustiatzen bada, kalitatea eta balio erantsia galduko du bertako produktuak”. Eta horrek artzainak kaltetu ditzakeela ohartarazi du: “Askotan, artzainak ez dira bizi gazta asko edo gutxi saltzen dutelako, garesti edo merke saltzen dutelako baizik. Biodibertsitate hori galtzen den momentutik, larrea zaintzen ez den unetik, berdin du produktuari zein etiketa jartzen diozun”.

Aralarren, gatazkak ugariak dira. Mendiaren erabilpen eta interes anitzak direnez, mendiguneari begiratzeko hainbat modu daude. Aralarren inguruko galderak egiteak kezka sortzen diete elkarriketatuei eta guztiek galdera bera egiten dute: “Zergatik Aralar?”. Bertatik bertara bizi dutenek ikuspegi argia dute gaiaren inguruan eta ez dute arazorik beren lanlekuaren inguruan mintzatzeko. Badakite, halere, mendiak itzal handia duela atzean: “Puf! Aralar aipatzearekin bakarrik, jendea borborka jartzen da”, ohartarazi du Uxue Artola abeltzainak. Gainera, Aralarko gatazkak “joko politikoaren parte” direla uste du, alderdien arteko talkaren eraginez sortuak.

EH Bildu eta EAJ dira tartean dauden alderdiak eta, agintean zein dagoen, hartzen diren erabakiak oso ezberdinak dira. Iritzi berekoa da Fede Zabala Aralar Bizirik plataformako kidea eta mankomunitateko kide ohia. Bere ustez, azken urteetan sortu da lehia: “Mankomunitatean kontsentsu handia egon zen alderdi guztien artean. Duela hiruzpalau urtetik, ordea, politikariek beraien joko zelai bihurtu eta lokaztu egin dute Aralar. Elkarri erasotzeko tresna gisa erabili dute”.



“[Aralarko produkzioa] inoiz ez da makroetxalde baten mailara helduko, baina gainustiatzen bada, kalitatea eta balio erantsia galduko du bertako produktuak”

Mikel Etxeberria, biologoa

Elkarlana eta bizikidetza

Joko politikoa alde batera utzi eta kontsentsua bilatzea proposatzen du Zabalak. Mankomunitatean, Le gorretako ordezkari izan zen 1980ko hamarkadan. Garai hartan alderdien artean lortu zuten batasun maila berreskuratzea gustatuko litzaioke: “Elkargune bat bilatu behar da: arlo ezberdinetako eginkizunak eta interesak dituztenak batu eta interes orokorra lehenetsi”.

Aitor Garmendia *Ingurumena, landa garapena eta lehen sektorea* batzordeko kidea da Zaldibiako udalean. Batzordearen helburua interes ezberdinak dituzten kideak mahaiaren inguruan batzean datza, erabaki komunak hartzeko. Zaldibiatik Aralarra zabaltzeko daitekeen ekimen bat da. Garmendiak elkarrizketa beharrezkoa ikusten du parke naturalean: “Xextra politikoak alde batera utzita, alde guztiak mahaiaren eseri eta hitz egin behar da. Denon onerako”.

Mahaiaren elkartzera, ordea, zaila da Aralarren kasuan. Harreman juxtuak, giro txarrak, irainak... denetik egon da pisten auzia dela eta. Garmendiaren ustez, baina, horrelakoak “beti” egon dira eta tentsioan jarraitzea gaitzesten du: “Guztiak ez du zertan zuria edo beltza izan”. Posizionamenduak alde batera utzita, bestelako mugimenduak ere badaude Aralarren. Esaterako, koba garbiketak edo zuhaitz landaketak antolatuta dituzte zenbait eragile eta herritarrek auzolanean.

Elkarlan hori da alde guztiek aldarrikatzen dutena. Elkarlana eta bizikidetza. Ariztimuñok ere hitz hori erabiltzen du: “Gizarte honen osasunerako arnas guinea da natura. Gizartearen zati batentzat aisia leku ere bada, bitartean beste batzuen lanleku ere bai. Kuestioa ez da inor desplazatzea, guztien bizikidetza bermatzea baizik”.

Hala ere, oraingoan, alde guztien partetik eta alde guztientzat dagoen bakarra kritikak dira: Hainbat dira kritikatuak: politikariak mendia

“Mankomunitatean kontsentsu handia egon zen alderdi guztien artean. Duela hiruzpalau urtetik, ordea, politikariek beraien joko zelai bihurtu eta lokaztu egin dute Aralar”

Fede Zabala, Aralar Bizirik-eko kidea

“Xextra politikoak alde batera utzita, alde guztiak mahaiaren eseri eta hitz egin behar da. Denon onerako”

Aitor Garmendia, *Ingurumena, landa garapena eta lehen sektorea* batzordeko kidea

joko zelai bihurtzeagatik; ingurumen elkarteak abeltzainak kontuan ez hartzeagatik; Aldundia abeltzainen interesei besterik ez begiratzeagatik; Mankomunitatea utzikeriagatik; abeltzainen elkarteak politika erasokorrak eramateagatik... Baina, finean, guztiek helburu bera dute eta guztiek hitz bera aipatzen dute: oreka. Interes zein erabilpen guztien oreka eta Aralarren biziraupena. Inork ez du artzainik gabeko Aralar bat nahi eta balio naturalik gabe artzaintzak ere jai du.

Aralar, mundua leku de lurra dokumentalean Europako Ingurumen komisarioa elkarrizketatu zuten eta Ion Fontenlak bere hitzak gogorarazi ditu: “‘win, win, win [irabazi, irabazi, irabazi]’ esaten zuen”. Horrekin esan nahi zuen posible dela natura, bertako biztanleak eta inguruko ekonomia irabazten ateratzea, hau da, Aralarren ere interes guztiek onura izan dezaketela.

Maiatza heldu da eta, horrekin batera, artzainek eta artaldeek neguko elurren erreleboa hartu dute Aralarren. Mendiak berriro ere ongi etorria egin dio gizakiari. Mendizaleak bueltan dira eta, auzi politikoak alde batera utzita, abeltzainek mendia zaintzen jarraituko dute. Pertsonen artean eztabaida nagusi den bitartean, naturaren eta gizakiaren arteko akordioak aurrera darrai ■



Herritarren mendia

Testua eta argazkiak: Aitor Garmendia Etxeberria

Goierrri eta Tolosaldeko hamabost udalerrik osatzen dute Enirio-Aralar Mankomunitatea. 1409 urtean sortu zen eta Aralar Parke Naturaleko 3.000 hektarea baino gehiagoren jabe da.

Herritarrek “antzinatik” ustiatu izan dituzte Aralar mendiguneko baliabideak, izan urak, egurrak zein larreak. Hori dio Enirio-Aralar Mankomunitatea sortu zuteneko idatziak. Antzinakoa da mankomunitatea bera ere, Aralar larko larre eta baso ugariren jabe dena. Zehazki, XV. mendeko lehen urteetan du jatorria.

1400 urtean, Gaztelako Enrike III. erregeak Amezketako jauntxoari eman zizkion Aralarko lurak. Orduan, inguruko herriek ez zuten dohaintza onartu. Bederatzi urte beranduago konpondu zen auzia. 1409an jauntxoak eskubide guztiak eman zizkien Ordiziako eta Amezketako Batasunei. Hori bai, trukean Aragoiko 1.400 florin jasota.

Horrela sortu zen jada 600 urte baino gehiago dituen Enirio-Aralar Mankomunitatea; Gipuzkoako hamabost herrik osatzen dute: Tolosaldeko Abaltzisketak, Amezketak, Baliarrainek, Ikaztegietak zein Orendainek; eta Goieritik, Aramak, Altzagak, Ataunek, Beasainek, Gaintzak, Itsasondok, Legorretak, Lazkaok, Ordiziak eta Zaldibiak.

Egun, hamabost herrietako ordezkari banak osatzen dute mankomunitateko batzarra eta zuzendaria

Ordiziako alkatea izaten da. Orde nantzak aplikatzearen ardura organo horrena da. Horietan ezartzen dira artzaintza egutegia, baimenduta ardi arrazak, abere bakoitzeko gehienezko kopurua... Funtsean, mankomunitateko lursailen administrazioaz arduratzen da batzarra. Kudeaketa, bestetik, Aldundiarekin partekatzen du, mankomunitateko lurak parke naturalaren barruan baitaude.

Egun martxan dauden jabetza komunal gutxietako bat da Enirio-Aralar. Industrializazioaren aurretik funtsezkoak izan ziren antzeko sistemak, baina joera liberalek lur gehienak esku pribatuetan jarri zituzten. Enirio-Aralarrek, ordea, eztabaida historikoak gorabehera, bere horretan dirau. Azken urteetan, gainera, gizartea landa eremuen garrantziaz jabetu eta herri-lurren birbalerizazioa ari da gertatzen ■



Emirio inguruko basoak behelatupean

Zerua eta lurpea, biak eskura

Testua eta argazkiak: Aitor Garmendia Etxeberria

Mendiak aisialdirako eremu garrantzitsu bihurtu dira azken hamarkadetan. Aralarren mendizaletasuna da jarduera nagusia, baina badaude bestelako jarduerak ere, espeleologia kasu.

Mendia sendabelar bihurtu da geroz eta bizkorrago bizi den gizartearentzat. Duela zenbait hamarkada, aprobetxamendurako ez bazen, ez zeukan zentzurik mendira joateak. Iñaki Aizpuru Enirio-Aralar Mankomunitateko batzarreko kideak gogoan du menditik itzultzean amak esaten ziena: “‘Zer ekarri duzue?’ galdetzen zigun. Bere ustez, mendira alferrik joatea zen”. Egun, mendiak erabilera anitzak ditu.

Erabilpen horien artean, seguruenik, arrakastatsuen mendizaletasuna da. Aralarko mendiak esploratze-ko ohiturak baditu hamarkada batzuk, baina aldatuz joan da. Zaldibiako Gailurrerantz Mendi Elkarteko batzordean dago Aitor Garmendia eta mendizaletasunak jasan duen aldaketaren jakitun da. Mendearen lehen urteetan mendi martxek “sekulako indarra” zutela azaldu du. Azken urteetan, ordea, mendian lasterka aritzen direnen kopurua asko handitu dela dio.

Haurrentzako txangoak antolatzeaz arduratzen da, batez ere, Garmendia. Guraso gisa, nahiz eta, bera ere korrika aritu izen den, mendia patxadaz ezagutzera bultzatu nahi ditu umeak: “Abereak, landareak eta inguruak ezagutzuz, egunerokotasun azkarretik atera eta pilak kargatzeko aukera ematen du”. Halere, Gailurrerantzek bestelako probak ere antolatzen ditu. 2019an Zaldibiako Mendi Lasterketa antolatzen hasi ziren Aralarren zehar. Ehunmilak eta Goierriko Bi Handiak

ultratrail entzutetsuek ere zeharkatzen dituzte Aralarko larre zein tontorrek eta eskalatzailentzat ere helmuga ezaguna da. Mendi bizikletan jende asko ibiltzen da eta, neguan, eskiatzeko ohitura ere badago.

Zerua ukitu nahi duten mendizaleez gain, lurpera sartu nahi duten espeleologoek topaleku ere bada Aralar. Kareharriz osaturiko mendigunea izanik, kobazuloz eta leizez josirik dago. Ion Fontenla Felix Ugarte Espeleologia Elkarteko kidea da eta Ataungo koben inbentario bat egiten ari da. Aralarren, Gipuzkoako zatian, mila kobatik gora daudela uste du, nahiz eta, “ez dagoen katalogo zehatz bat”.

Fontenlaren esanetan, Troskaeta eta Sarastarri kobak dira ezagunenak: “Gertu daude eta politikak dira”. Sarastarrikoak, gainera, badu istorio bitxi bat: Joxe Migel Barandiaran antropologo eta etnografo ezagunak igerian zeharkatu omen zuen koba barruko putzua kandela bat ahoan zuela. Leize eta koba gehienak, ordea, ez direla ezagutzen jakinarazi eta horien balioa goraiatu du: “Ez dira ezagutzen eta balio handia dute, bisita batzuk jaso dituzte, baina gehienak bere horretan daude”. Espezie endemikoen bizileku ere badira: barraskiloak, intsektuak zein saguzarrak. “Isolatuta egon direlako eta espezie ugari daudelako dira hain garrantzitsuak; *aralarensis* espezie asko daude” ■





“Abereak, landareak eta inguruak ezagutuz, egunerokotasun azkarretik atera eta pilak kargatzeko aukera ematen du”

Aitor Garmendia, Gailurrerantz Mendi Elkarteko batzordekidea

“[Aralarko koba gehienak] ez dira ezagutzen eta balio handia dute, bisita batzuk jaso dituzte, baina gehienak bere horretan daude”

Ion Fontenla, Fellix Ugarte Espeleologia Elkarteko kidea





Jeronimo Nazabal, txabolako atean



ARALARKO PATRIARKA

Jeronimo Nazabal Etxeberria, artzaina

Testua eta argazkiak: Aitor Garmendia Etxeberria

Jeronimo Nazabalen “betiko nahia” artzain izatea zen. Aitona zein gurasoengandik jaso du ogibidea eta, egun, Aralarren urte gehien daramatzan artzaina da. 62 urte ditu eta “urtero-urtero” igo da, inoiz huts egin gabe.

Ardiak urduri daude, norbait sumatu orduko hasten dira arrapaladan aurrera eta atzera. Badakite nora joatekoak diren. Aurreko egunean, kamioian sartu zituztenean ere nabari omen zitzaien urduritasuna eta mendiko larreetara igotzeko gogoa. Izan ere, negua Oiartzunen igarotzen du Jeronimo Nazabal Etxeberriaren (Zaldibia, 1960) artaldeak eta badakite, orain, Aralarko larreetara doazela.

Goizeko hamarrak igaro dira eta artzaina ez da ageri. Arreba dauka zain: “Behingoz, ez naiz ni berandu heldu dena!”. Laster iritsi da artzaina eta, berarekin batera, autotik jaitsi dira bere seme-alabak. “Bide erditik-erditik zihoazen hiru txirrindulari eta ez ziren baztertzen!”, kexatu da gizona. Oiartzundik, negua igarotzen duen lekutik, iritsi da. Ardiak, aldiz, aurreko egunean ailegatu ziren eta Aralarko ateetan dagoen lursail batean igaro dute gaua, alboko base-ritarrak utzita.

Txabolara igotzeko eguna ekitaldi garrantzitsua da Nazabalentzat eta bere familiarentzat. Arreba, koinatua, semea eta alaba elkartu dira zain dagoen artaldearen inguruan. Artzainaren arrebak prestatutako ogitartekoak jan eta, indarrak hartu ostean, Aralarrerako bidea hartzeko prestatzen hasi dira. Artaldeak gaua igaro duen lursailaren jabea moto gorri batean azaldu da eta, abiatu aurretik, artzaina agurtu du. Arreba eta koinatua ere aurretik abiatu dira, Enirion utziko dute artzainaren autoa.

Zaldia soka batekin heldu eta Nazabal Aralarko larreetara doan pistan barrena abiatu da. 250 ardi inguru ditu bere atzetik. “Beste zenbait ardi eta ahariak Oiartzunen utzi ditut; baina ardi horiek ere igoko ditut geroago”. Guztira, 270 bat abelburu ditu. Artaldearen atzealdean doaz artzainaren semea, alaba eta hiru zakur. Ardirik atzera geratzen ez dela zaintzea da beraien egitekoa.

Familiako ogibidea

Jeronimo Nazabal gurasoekin hasi zen Aralarko txabolara igotzen. Aitona artzaina zuen eta aitak zein amak ogibideari eutsi zioten: “Aita eta ama, biak etortzen ziren Aralarrera. Guk eskola amaitzen genuenean igotzen zen ama eta guk ere oporrak bertan igarotzen genituen: amak, aitak, arrebak, anaiak eta nik”.

Hiru senideetatik berak eman dio jarraipena gurasoen ogibideari: “Aitak 70 urte inguru zituenean utzi zuen artzaintza, baina geroago ere mendira igotzen jarraitu zuten aitak zein amak”. Ezizena ere aitarengandik jaso zuen, *Beltza* bezala ezagutzen dute Aralarren: “Aitari horrela deitzen zioten eta, orain, niri ere bai”.

Artzaina izatea zen Jeronimo Nazabalen “betiko gogoa”. Hamalau urte bete arte, Zaldibiako eskolara joan zen, baina ez zuen oso gustuko. Gainera, “joan ere gutxi” egiten zela azaldu du, neguan aitari laguntzen egoten baizen: “Horrela ez zegoen ikasterik”. Eskolara baino gusturago joaten zen Nazabal mendira.

Ardiak ere gustura igo dira. Baten bat herren zegoen eta zailtasunak izan ditu, baina, gainerakoan, artzainaren seme-alabek ez dute lan handirik izan artaldearen atzealdean. “Hauek [ardiak] bakarrik ere igoko lirateke”, azaldu du Nazabalek. Tarteka amorrarazi ere egin dute, etengabe artzaina zein zaldia



Txabolarako bide harritsua

aurreratzen baitzituzten, larreetara iristeko gogo biziz zeuden.

Aurreko asteetatik nabaritu die Nazabalek ardiei mendira igotzeko grina: “Tankera ematen diote mendira noiz igo behar duten, aspalditik nabaritzen zitzaien urduritasuna”. Artzainak ongi ezagutzen ditu animalien jokaerak, baita Aralar bera ere. Bertan urte gehien daramatzen artzaina da: “Zaharrena ez, baina bai urte gehienetan igo dena”. 62 urtetan igo da Aralarrera, dituen bezainbestetan: “Urtero-urtero igo naiz, ez dut behin ere huts egin”. Jaio eta hilabete gutxira igo zen lehen aldiz eta, ordutik, soldadutza egin zuen garaian

ere ez zuen kale egin: “Udan baimena eskatu eta iristea lortu nuen”.

Txabolatik ardien bila egin ohi duen bidea zenbaitetan pasatu ote duen pentsatzen hasi da. Alabari mugikorrek kalkulgailua hartzeko eskatu eta hala ekin dio: “Ardien bila joaten hamabi bat urterekin hasiko nintzen, beraz 50 urte. Hori biderkatu txabolan urtero pasatzen ditudan 180 egunekin eta egunean behin edo bitan joanda...”. Guztira, bidea 10.000 aldiz baino gehiagotan igaro duela atera zaio. Hori soilik goraka, beheraka beste horrenbestetan.

“[Ardiek] tankera ematen diote mendira noiz igo behar duten, aspalditik nabaritzen zitzaien urduritasuna”

Urte horietan guztietan zehar, bizipen ugari bildu ditu Aralarko larreetan. Tartean, hedabideekin harremana ere izan du. Berriki, *Noticias de Gipuzkoa* egunkarirako elkarrizketatu dute. ETB1eko *Ur Handitan* saioan ere aritu da. Urte batzuk lehenengo, CNN katean ere agertu omen zen: “Gizon handi bat etorri zen kamerarekin, sandaliak jantzita! Beste behin, zortzi hilabeteko haurdun etorri zen EITBko kazetari bat. ‘Ez al dakizu nora zatozen?’ galdetu nion”. Izan ere, Nazabalen txabolarako bidea ez da sandaliek edo haurdun egiteko oso aproposa.

Elkartasunaren garrantzia

Enirio izeneko ingurunean utzi dute artzainaren autoa bere arrebak eta koinatuak. Bertan, aurrez zaldiari jarritako saskiak betetzeari ekin dio. Arropa, janaria, ardientzako botikak, gatzagia... guztia zaldiaren gainean jarri eta, toldoarekin estali ostean, guztia sokekin lotu du, ondo lotu ere: “Aitak irakatsi zidan hori: ‘zaldia ondo kargatu eta ondo lotu’. Urte batean, zaldia albo batera irauli zen karga gaizki lotuta zegoe-lako”. Aurten, ez zaio halakorik gertatu.

Eniriotik seme-alabek hartu dute autoa eta Igaratza aldera doan pistan barrena joan dira. Artzainak mendian gora doan bidexka hartu du. Ardiak, dagoneko, badoaz txabola aldera beraien kabuz. Bi bide daude Kutixao txabolarara iristeko, baina oinez iritsi beste modurik ez dago: bata, seme-alabek autoa utzi duten lekutik doa, laburragoa da eta hori da artzainak normalean ibili ohi duena. Bestea, Eniriotik zuzenean doa eta hori “soilik lehen egunean eta azkenekoan” erabiltzen du.



Harriz beteta dago txabolarako bidea, zenbait zaititan zaila dirudi zaldia pasa daitekeenik. Tarteka atsedean hartu dute zaldiak zein artzainak, baina iritsi dira txabolaraino: “Oraingoz belaunek errespetatzen naute, eta eskerrak!”. Halere, Nazabalek bidearen egoera kaxkarra salatzen du: “XXI. gizaldian horrela ibili beharra ere...”.

Kutixao txabola mila metrotik gora dago eta Jeronimo Nazabalen bizileku izaten da sei hilabetez. Gutxitan itzultzen da Oiartzunera, “papeleoren bat egin behar denean edo zerbait ekarri beharra badago soilik”. Gainerakoan, goian egoten da eta “astean behin edo horrela” jaisten da erosketak egitera. Gaixotuz gero zer egiten duen galdetzerakoan honakoa erantzun du: “Oraindik ez zait tokatu gaixotu eta beheran gelditu beharra”. Manga motzeko alkandora jantzita igo da txabolara eta, bertan, tirantedun kamiseta jantzi du. Txabolako termometroak zortzi gradu markatzen ditu eta haize hotza dabil. Behin baino gehiagotan esan diote artzainari zerbait gehiago jantzeko, baina berak argi dauka: “Honek ez du gaixotzen!”.

Gaztetan gehiagotan jaisten zen herrira, “batez ere, asteburuetan lagunekin egotera, herrietako jaietara...”. Orain, ordea, asteburuetan bisitak jasotzen ditu, baina bera ez da jaisten: “Anai-arrebak, seme-alabak, koinatuak... familiakoak etortzen dira. Astean zehar hemen ez da inor ibiltzen”. Txabola mendizaleak ibili ohi diren ibilbideetatik kanpo dago, nahiko gune isolatuan: “Udaberrian ziza garaian etortzen da jendea, baina horiek ezkutuan ibili nahi izaten dute. Udan, oso jende gutxi ibiltzen da”.

Halere, *Beltza* ez da bakarrik egoten. Artaldea, zaldia eta bost txakurrez gain, bizilagunak ere baditu: “Beste hiru txabola daude inguruan eta oso ondo moldatzen gara elkarrekin”. Hori asko eskertzen du artzainak: “Hemengo elkartasun errearen parekoa da. Beheran, herrian, norbaitekin haserretzea ez da horrenbestekoa, baina hemen...”. Aralarko beste artzainekin ere harreman ona du Nazabalek: “Ardiekin Alotzara joaten naizenean beste artzainekin kontutan aritzen naiz”.

Seiretarako jaikita

Kontutan aritzeaz gain, aisialdian, telebista ikustea ere gustuko du artzainak. Kirolzalea da. *Athleticeko* etxeko zapatilak jantzita ibiltzen da txabolan eta, telebistan, txirringularitza zein pilota ikustea gustatzen zaio: “Ostiraletan ikusten dut pilota. Larunbatetako eta igandeetako partidek, ordea, ardiak jezteko orduarekin kointziditzen dute”.

1992an heldu zen argindarra Kutixao txabolara eta, egun, ur korronea zein ur berogailua ere baditu bertan: “Gaur egun, normala da, baina jarri zute-



Nazabal bere artaldearekin, jeztozorian

“Hemengo elkartasuna errearen parekoa da”

nean sekulako aurrerapena izan zen”. Mugikorrek ere funtzionatzen dio. Tekla handidun mugikorra da Nazabalena eta txabolako ate alboko pota batean uzten du. Estaldurak ez diola arazorik ematen dirudi, egunean zehar, behin baino gehiagotan deitu baitiote.

Halere, artzainak ez du denbora gehiegi igarotzen telebistaren aurrean edo telefonotik hizketan. Goizeko seiretan edo “lehentxeago” jaiki ohi da ardien bila joateko. Artaldeak kanpoan igarotzen ditu gauak eta, eguraldi ona dagoenean, lan bikoitza izaten duela azaldu du: “Eguraldia ona baldin bada, ardiek goran pasatzen dute gaua eta goizean bila igo behar izaten dut. Egunean zehar ere eguraldia ona bada, berriro joaten dira goraino. Beraz, askotan bitan igo behar izaten dut”.

Aurreneko egunean ere ez dizkiote lanak erraztu. Txabolatik igaro gabe, zuzenean, jo dute ardiek gailurretara. Kareharriz beteriko inguruetan gora igo da



orduan” jaikitzen da, “bost eta erdiak aldera”. Gainera, egiteko gehiago izaten ditu: “Ardiak jetzi, zelaietara eraman, pixka bat kasu egin, jana jarri, azpiak egin...”. Neguan, arkumeak eta esnea saltzen ditu.

Horregatik, artzaina, ardiak bezalaxe, Aralarrera igotzeko gogoz egoten da: “Lasaiago ibiltzen naiz eta ardiak ere gustura egoten dira”. Horregatik, artzainak ez du erretiroa hartzeko presarik: “Badaezpada ez dut begiratzen jubilaziorako zenbat gelditzen zaidan”. Egun hori iristean, ez daki Aralarrera igo gabe egon ahalko duen: “Ez dut probarik egin, baina baietz esango nuke. Besterik ez bada, beste mendiren batean txabola bat egingo dut”. Izan ere, behin erretiroa hartzeko eguna iritsi eta eskaria baldin badago, Kutixao txabola utzi beharko du, Enirio-Aralar Mankomunitatearena baita. Halere, ez du uste eskaririk egongo denik: “Hona zein etorriko da ba?”. Ez dio etorkizun oparoa ikusten artzaintzari: “Etorkizun beltza dago; ni bezalaxe, *Beltza*”.

Kutixao txabolako atean eguzki loreak daude iltzatuta. Espiritu txarrak uxatzeko erabiltzen ziren garai batean. Alboan, sorgin baten panpina ere badago eta, tartean, Aralarko San Migelen irudi bat. Eraikinaren barruan, beheko suaren gaineko tximinian, argazki ugari daude zintzilik, baita pikatxoi bat ere. Egia esan, horma guztian zehar daude argazkiak zein erremintak: mamia nahasteko egurrezko tresnak, laiak, ardiei ilea mozteko guraizeak, trontza bat, labanak... Ameriketako indio baten irudiak ere badaude. “Ez al duzu ezagutzen? Geronimo indiaoa da”. Eta, horien guztien artean, egunkari bateko errekorre horitua: *Juan Ramon Nazabal y Lasa, patriarca, de Zaldibia y el monte Aralar*. Errekortearen alboan, egutegi bat dago, aurreko urteko urritik ukitu gabea. Txabolara iritsi bezain laster jarri du artzainak egutegi berria, itzuli da. Mendian da beste urte betez Juan Ramon Nazabalen biloba, Jeronimo Nazabal, Aralarko patriarka berria ■

artzaina artaldearen bila, hori da 10.000 aldiz igaro duen bidea, eta nabari da: “Harri horien atzean bi kobazulo daude, leize horretara behor bat erori zen iaz, txoko horretan zizak ateratzen dira...”. Ia Urrain mendiaren gailurreraino igo behar izan du Nazabalek artaldearen bila. Alotzako belardien ikusmira zabala duen tontorretik alabaren laguntzarekin jaitsi ditu ardiak jetzitegira.

Egunean bi aldiz jetzen ditu ardiak: “Ardiak jetzi, esnari gatzagia bota eta gazta egin”. Goizez eta arratsaldez. Hori Aralarren dagoenean. Neguan, Oiartzunen, ez du gatzarik egiten, baina “antzeko



Kutixao txabolaren barrualdea

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea